

JUAN OROBIOGOITIA B.H.I.	ONARTUA I.I.	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
BARNE ARAUTEGIA		AR010101	11/11/02
		Ber. 1	Orr. 1/27



Barne Arautegia

JUAN OROBIOGOITIA B.H.I.	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
BARNE ARAUTEGIA	AR010101	11/11/02
	Ber. 1	Orr. 2/27

AURKIBIDEA:

A. HARTUTAKO ERABAKIAK

1. Irakasleen zenbait lan	4
2. Gurasoekin harremanak	4
3. Euskeraren erabilera	4
4. Irteerak	4
5. Talde aldaketak	5
6. Ordu banaketa	6
7. Igarotze irizpideak	7
8. Irakaslegoaren antolaketa	9
9. Ordutegia	11
10. Testu liburuak. liburu solidarioak	11
11. Takilak	11
12. Paperaren erabilera	12
13. Azterketak	12
14. Ikastetxeko zerbitzuak	13
15. Eskola-komunitateko kide baten heriotzaren aurrean	13
16. Ikasleen irudia erabiltzeko baimena	13
17. Beste batzuk	13

B. IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1. ESKUBIDEAK

1.1. Hezkuntza integrala izateko eskubidea	13
1.2. Ikasle adingabeen eskubidea arreta berehala jasotzeko	14
1.3. Ikastetxeak babesteko ikasle adingabeek duten eskubidea	15
1.4. Errendimendu akademikoaren balioespen objektiboa izateko eskubidea	15
1.5. Eskola- eta lanbide-orientaziorako eskubidea	15
1.6. Osotasun, nortasun eta duintasun pertsonaleko eskubidea	15
1.7. Kontzientzia-askatasunerako eskubidea	16
1.8. Ikastetxeetan biltzeko eskubidea	16
1.9. Adierazpen-askatasunerako eskubidea ikastetxeetan	17
1.10. Ikasleek elkartzeko duten eskubidea	17
1.11. Parte hartzeko eskubidea	17

JUAN OROBIOGOITIA B.H.I.	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
BARNE ARAUTEGIA	AR010101	11/11/02
	Ber. 1	Orr. 3/27

1.12. Informazioa erabiltzeko eskubidea.....	18
1.13. Aukera-berdintasunerako eskubidea.	18
1.14. Gizarte-babeserako eskubidea.....	18
1.15. Ikastetxean ikasleen eskubideak errespetatzen direla bermatzea	19

2. IKASLEEN BETEBEHARRAK

2.1. Ikasteko betebeharra.....	19
2.2. Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko betebeharra.....	19
2.3. Bertaratzeko betebeharra.....	20
2.4. Bizikidetzaren errazteko betebeharra.	20
2.5. Norberaren kontzientzia-askatasuna errespetatzeko betebeharra.....	20
2.6. Eskolako arauak errespetatzeko betebeharra.	18
2.7. Instalazioak errespetatzeko betebeharra.	18

3. DESEGOKIAK ETA AURKAKOAK DIREN NAHIZ BIZIKIDETZAN KALTE LARRIAK ERAGITEN DITUZTEN JOKABIDEAK ETA HORIEN ZUZENKETA

3.1. Jokabide desegokiak.....	19
3.2. Bizikidetzaren aurkako jokabideak	21
3.3. Bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkieten jokabideak.....	23
3.4. Ikastetxetik kanpo egindako jokabide edo egintzengatiko erantzukizuna	24

JUAN OROBIOGOITIA B.H.I.	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
BARNE ARAUTEGIA	AR010101	11/11/02
	Ber. 1	Orr. 4/27

A. HARTUTAKO ERABAKIAK

1. Irakasleen zenbait lan :

- Irakasleak gela giltzez itxi behar du atsedendietan, bazkaltzeko orduan eta gela ikaslerik gabe uzten denean.
- Egunean eguneko faltak sartzea komeni da. Edonola ere, asteko falta guztiek ostiralean edo, gehienik ere, hurrengo astelehen eguerdirako sartuta egon behar dute. Ikasleen hutsegiteak informatika-aplikazio baten bitartez egingo dira. Hutsegite arruntak direnean, inika edo/eta agendako agiriak erabili daitezke horiek justifikatzeko. Ikaslea azterketara falta bada, medikuaren ziurtagiria behar da.
- Istripuak gertatzen direnean, zaintzan dagoen irakaslea arduratuko da gurasoekin harremanetan jartzen eta medikuarengana jo behar izanez gero, bideak ezarri eramateko. Horretarako, familia bakoitzari bigarren telefono zenbaki bat eskatuko zaio.

2. Gurasoekin harremanak :

- Kurtso hasieran Gurasoen Batzar Orokorra egingo da.
- Urriaren lehenengo astean, gelako batzarrak egingo dira, tutore bakoitza bere taldeko gurasoekin bilduko delarik.
- 1. eta 3. ebaluazio ondoren, tutorea guraso bakoitzarekin banan-banan jarriko da harremanetan.
- Irakasle orok ordu bat izango du astero gurasoekin bilerak egiteko.

3. Euskararen erabilera :

- Administrazioarekin ditugun harreman idatziak euskaraz izango dira.
- OOG-ko bileren aktak euskaraz egingo dira. Gurasoek erderazko azalpen bat eskatuz gero, gurasoen estamentua arduratu beharko da bitartekoak jartzen. Ikasleekin harremanak beti euskaraz izango dira.
- Gurasoekin ditugun harremanetan erabiliko dugun hizkuntza honelakoa izango da :
 - Mailako batzarrak: bi hizkuntzatan.
 - Harreman idatziak, gurasoen nahiaren arabera izango dira: Euskara hutsean ala elebiduna.

4. Irteerak :

Ikastetxetik kanpo egiten den edozein jarduera osagarritan, ikasleekin batera gutxienez bi profesionalek egon beharko dute beti, eta horietako bat, gutxienez, ikastetxeko irakaslea izango da; hala

JUAN OROBIOGOITIA B.H.I.	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
BARNE ARAUTEGIA	AR010101	11/11/02
	Ber. 1	Orr. 5/27

dagokienean, hezkuntza-laguntzako espezialistek ere egon beharko dute. Bestalde, ikasleei laguntzeko irakasle kopuruari dagokionez, gutxienez irakasle bat egongo da 20 ikasleko edo irakasle bat 10etik gorako zatikiko, betiere aurrez aipatu gutxieneko irakasle kopurua errespetatuz. Ahal den neurrian, jarduera horretan parte hartzen duten ikasleen irakasle-taldeko kideak izango dira.

Egun baterako irteerak, (beti helburu batekin, mailaka, sailka...) irakasleen nahiaren arabera egingo dira. Irakasleak prest baldin badaude, egingo dira irteera hauek, bestela ez.

Egun batzuetarako irteeretan ere, bakarrik egingo dira irakasleak prest baldin badaude.

Irteera hauetara ikasle guztiek joan behar dute. Ikasleren batzuk ez baldin badoaz, ikastetxera etorri beharko dute normaltasun osoz.

1. Batxilerreko ikasle bat 2. Batxilerreko taldearekin ikasketa bidaiara joateko bete beharreko baldintzak:

- 1) Irakasleak eskatu behar du eta gurasoak ados egon behar dute.
(Ikasle horrek bere gelako bi klase egun galduko ditu)
- 2) 1. Batxilergoa errepikatu behar du ikastetxe honetan.
- 3) Ikasle horrek ez du izango baimenik berriz hurrengo ikasturtean ikasketa bidaiara joateko.

Egonaldietan egongo diren irakasleek honelako egun libreak izango dituzte:

1.- Bidaian emandako hiru gau bakoitzeko egun bat libre: gau bat, gau bi, hiru gau (egun bat libre), lau gau, bost gau, sei gau (egun bat libre)

2.- Irteeretako egun batzuk jai egunak balira, (gorriak egutegian) jai egun bakoitzeko egun bat libre.

Ikastetxetik kanpo egiten den edozein jarduera osagarritan, ikasleekin batera gutxienez bi profesionalek egon beharko dute beti. Hala dagokienean, hezkuntza-laguntzako espezialistek ere egon beharko dute.

Bestalde, ikasleei laguntzeko irakasle kopuruari dagokionez, gutxienez irakasle bat egongo da 20 ikasleko edo irakasle bat 10etik gorako zatikiko, betiere aurrez aipatu gutxieneko irakasle kopurua errespetatuz. Ahal den neurrian, jarduera horretan parte hartzen duten ikasleen irakasle-taldeko kideak izango dira.

5.Talde aldaketak:

- D.B.H. hasterakoan irakasleak talde desberdinetan kokatuko dira, eta 1. zikloa amaitu arte horrela jarraituko dute. Banaketa hau egiteko, jatorrizko ikastetxeetan izan dituzten tutoreen laguntza eskatuko da. Dena dela, irizpide nagusia aniztasuna kontutan izatea da. (AR010301-taldekatzeko irizpideak)

JUAN OROBIOGOITIA B.H.I.	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
BARNE ARAUTEGIA	AR010101	11/11/02
	Ber. 1	Orr. 6/27

- Hirugarren mailara pasatzerakoan taldeak osatzeaz 2. mailan izan dituzten irakasleak eta orientatzailea arduratuko dira
- 4. mailara pasatzerakoan, taldeak osatzeaz aukeren arabera egingo dira taldeak
- Batxilergoa: taldekatzea aukerakotasun esparruaren arabera egingo da.

6. Ordu banaketa :

DBH:

	1.	2.	3.	4.
Euskera	4	3	3	4
Gaztelera	4	3	3	4
Ingelera	3	4	3	3
Matematika	3	4	4	3
Geografia eta Historia	3	3	3	3
Biologia-Geologia	3		3	3
Fisika- Kimika		3	3	3
Teknologia	2	2	2	
Gorputz H.	2	2	2	2
Plastika	1	1	1	
Musika	1	1	1	
Erljioa/Balore etikoak	1	1	1	1
Tutoretza	1	1	1	1
Aukerakoak	2	2		3

Aukerakoak:

- DBH-ko 1. mailan : Hezkuntza Indartze.
- DBH-ko 2. mailan: Prentsa ingelesez, Artisautza, Ingurumen tailerra, Musika tailerra, Asmakizun tailerra.
- DBH-ko 4.mailan: Fisika-kimika, Biologia, Ekonomia, Frantsesa, Musika, Plastika, Teknologia, Filosofia.

BATXILERGOA:

	Batx 1	Batx 2
Anatomia	4	
Atzerriko Hizkuntza. Ingelesa	3	3
Biologia		4
Biologia eta Geologia	4	
Ekonomia	4	
Enpresaren Ekonomia		4

JUAN OROBIOGOITIA B.H.I.	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
BARNE ARAUTEGIA	AR010101	11/11/02
	Ber. 1	Orr. 7/27

Espainako Historia		4
Euskal Hizkuntza eta literatura	3	3
Filosofia	3	
Filosofiaren Historia		4
Física		4
Física eta Kimika I	4	
Frantsesa	4	4
Gaztelania eta literatura	3	3
Geografia		4
Giza Zientziei bideratutako Matematika	4	4
Gorputz Hezkuntza	2	
Historia Garaikidea	4	
Industri Teknologia	4	4
Kultura Zientifikoa	4	
Kimika		4
Literatura Unibertsala		4
Lurraren eta ingurugiroaren zientzia		4
Marrazketa teknikoa	4	4
Matematika	4	4
Psikologia		4

7. Igarotze irizpideak DBHn eta Batxilergoan.

Mailaz igarotzeko erabakia ikasle talde horren irakasle taldeak hartuko du, ebaluazio bileran elkartuta, irakasle tutoreak koordinatuta eta, hala dagokionean, ikastetxeko Orientazio Mintegiak aholkatuta. Ikasle bat hurrengo mailara igarotzen den ala ez irakasle taldeak era kolegiatuan erabakiko du, oinarrizko helburu eta gaitasunen eskuratzea kontuan hartuta. Erabaki hori hartzeko ondorengo puntuak izango dira kontuan:

- Kasua ematen bada, irakasle taldeko partaide guztiek eman beharko dute euren botoa ikaslea mailaz igarotzeari BAI edo EZ adieraziz. Ez dago abstenitzeko aukerarik.
- Akordioak irakasle taldearen bi herenen gehiengoarekin hartuko dira. Irakasle taldeak ebaluazio saioko aktan azaldu beharko ditu hartutako erabaki guztiak, hala nola, aldeko eta kontrako boto kopuruak.

Erabakia hartzeko, adostasunera heltzeko arazoak badaude (DBH), beharrezkoa izango da ikaslearen irakasle guztien -bileran izan ala ez- bi herenek aukera baten aldeko botoa ematea. Horrelakorik ez badago, nahikoa izango da bigarren bozketan irakasleen erdia baino gehiago aukera baten alde agertzea; eta, boto berdinketa izanez gero, tutoreak izango du azken erabakia.

Batxilergoan, irakasgaia eman duen irakasleak erabakiko du, beste irakasleen iritzia kontuan hartuta.

- Maiatzean (batxilergoko kasuan) eta ekainean (DBHn) *ohiko* ebaluazioa egingo da. Ebaluazio honetan, arlo guztien helburuak gainditu dituzten ikasleak, halaber, aurreko ikasturteetatik gainditu gabe zituenak barne, hurrengo mailara igaroko dira.

JUAN OROBIOGOITIA B.H.I.	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
BARNE ARAUTEGIA	AR010101	11/11/02
	Ber. 1	Orr. 8/27

- Arloren baten kalifikazio negatiboa jaso duten ikasleak, ikasturte amaierako *ez ohiko* azterketetara aurkeztu beharko dira.
- Ekainaren *ez ohiko* izaera duen ikasturteko azken ebaluazio saioa egingo da. Saio honetan erabakiko da arlo guztiak gainditu gabe geratu diren ikasleen mailaz igarotzea edo errepikatzen geratzea.

DBH:

- Arlo guztietako helburuak, aurreko ikasturtekoenak barne, gainditu dituzten ikasleak pasatuko dira hurrengo ikasturtera.
- Era berean, mailaz igaroko dira gehienez bi ikasgaitan *ez gainditua* duten ikasleak, aurreko ikasturtekoak barne direlarik.
- Salbuespenez, hiru ikasgaitan ez gainditua izanda mailaz igarotzea erabaki dezake irakasle taldeak, honako irizpideak kontuan hartuta:
 - Hiru ikasgai hauen artean ez daitezela egon hauetako bi: Euskal Hizkuntza eta Literatura, Gaztelania eta Literatura eta Matematika.
 - *Ez gainditutako* hiru ikasgai horietako baten ere, ikasleak ikasgaia abandonatua ez izatea.
 - Hiru ikasgai horien asteko ordu kopurua 8 ordu edo gutxiagokoa izatea.

BATXILERGOA:

- Bigarren mailara pasatuko dira ikasitako ikasgai guztiak gainditzen direnean edo gehienez bi ikasgaitan ebaluazio negatiboa jasotzen denean.
- Bigarren mailara ikasgai guztiak gainditu gabe pasatzen direnak gainditu gabe dituzten aurreko mailako ikasgaietan matrikulatu behar izango dira. Ikastetxeak errekupeziarako jarduerak eta gainditu gabeko ikasgaien ebaluazioa antolatuko ditu.
- *Maila berean urtebete gehiago geratzea:*

Bigarren mailara pasatzen ez diren ikasleek urtebete gehiago geratu beharko dute lehenengo mailan, eta maila osoa egin beharko dute ebaluazio negatiboa duten ikasgaiak lau baino gehiago badira.

Bigarren mailara pasatzen ez direnek eta hiru edo lau ikasgaitan ebaluazio negatiboa dutenek aukeran izango dute:

- Berrito Batxilergoaren 1.an matrikulatzea oso-osorik, lortutako kalifikazio guztiei uko eginez.

JUAN OROBIOGOITIA B.H.I.	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
BARNE ARAUTEGIA	AR010101	11/11/02
	Ber. 1	Orr. 9/27

- Berrero Batxilergoaren 1.an matrikulatzea oso-osorik, gairiditutako ikasgaien prestakuntza sendotzeko eta kalifikazioa hobetzeko aukerarekin. Kalifikazioa apalagoa balitz, aurreko urtekoari eutsiko zaio.

Bigarren maila amaitzean, ikasgai batzuetan ebaluazio negatiboa duten ikasleek ikasgai horietan matrikulatu ahal izango dira, gairiditutako ikasgaiak berriz ikasi behar izan gabe.

8. Irakasleen antolaketa :

Karguak izendatzeko irizpideak, hauek izango dira:

a) Tutoreak :

Ahaztu gabe irakasle guztiek dutela beren funtzio eta eginkizunen artean, 236/2015 Dekretuaren 30. artikularen arabera, ikasleen artean sor daitezkeen arazoak eta gatazkak konpontzea, ikastetxe bakoitzean ikasle-talde bakoitzak tutore bat izango du, curriculum aniztasuneko taldeetan izan ezik, horiek bi tutore izango baitituzte. Tutorea talde horretan ikasgai bat edo gehiago ematen dituen irakasle bat izango da.

Posible den heinean, ahaleginak egingo dira DBHko ikasleek tutore bera izan dezaten ikasturte guztietan, batik bat 1. eta 2. mailan.

Talde guztietarako tutore nahikorik ez badago, beste kargu batzuk dituzten edo beste tutoretza batzuez arduratzen diren irakasleek arduratu beharko dute. Horretarako, hezkuntza arretako orduak egitetik salbuetsita geratu ahalko dira, betiere beste irakasleen artean egiten badituzte.

Tutoreak ikastetxeko zuzendariak izendatu beharko ditu, ikasketa-buruaren proposamenari jarraituz eta egokitasuna kontuan izanik.

Zuzendaritzak beste funtzio batzuk esleituko dizkie tutoretzatik kanpo beste kargurik ez duten eta tutoretzarako ikastalderik ez duten irakasleei.

Tutoreek orduak izango dituzte beren ordutegian tutoretzako ekintza-planeko (TEP) programazioa garatzeko.

b) Mintegiburuak :

- Tutoretza ez dutenak
- Ikastetxeko plantilla minimoki finkatu arte zuzendaritza taldeak izendatuko ditu sailburuak, hala aginduta baitator Delegaritzatik. Halere plantilla finkatzen joan ahala departamentu bakoitzak aukera izango du sailburua aukeratzeko.

JUAN OROBIOGOITIA B.H.I.	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
BARNE ARAUTEGIA	AR010101	11/11/02
	Ber. 1	Orr. 10/27

c) Ardurak :

Ondorengo baliabide hauek ditugu zentruan: Liburutegia, Ikus-entzun materiala, informatika, laborategia...). Horietako lan batzuetarako egoera berezian dauden irakasleei ere laguntza eska geniezaieke.

d) DBHko Koordinatzailea:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta bestelako hezkuntza-etaparen bat (Lehen Hezkuntza, Batxilergoa eta/edo heziketa-zikloak) ematen duten ikastetxeen kasuan, zuzendaritzak DBHko irakasle bat izendatu ahal izango du DBHko koordinatzailearen lanak egin ditzan. Pertsona horrek zeregin eta ardura hauek izango ditu, ikasketa-buruak zuzenduta eta gainbegiratuta:

- DBHko mailen eta irakasleen koordinazio pedagogikoa.
- Bigarren Hezkuntzako ikastetxearen eta esleituta dauzkan Lehen Hezkuntzako ikastetxeen arteko komunikazioa eta lankidetzak, bi hezkuntza-mailetakoko curriculum-proiektuen arteko koordinazioa bermatzeko.
- Ikastetxearen eta DBHko ikasleek ondoren gauzatu dituzten Batxilergoko eta Erdi mailako heziketa-zikloetako ikasketen irakasle-taldearen arteko komunikazioa eta lankidetzak; talde horiek ikastetxe berekoak edo derrigorrezkoak ez den bigarren hezkuntzako beste ikastetxe batzuetakoak izan daitezke.

e) Koordinazioa :

- Tutoreak mailaka bilduko dira orientatzailearekin. Ordu bat finkatuta dago ordutegian.
- Mintegiak beren orduan bilduko dira astero.
- Mintegi buruek eta Ikasketaburuak koordinazio finko bat edukiko dute.
- Zuzendaritza batzordea astero bilduko da.
- Klaustroa dagoenean irakasle taldea bilduko da.
- Proiektuak aurrera eramateko asteroko bilerak egingo dira.

f) Zaintzak: (AR010401)

- Zaintzako irakasleen lehendabiziko zeregina bi eraikinak hustea da, jolastorduan zein bazkaltzeko orduan. Ikasleek espazio eta ordu hauetan baimen bereziren bat badute, jakinaren gainean jarriko dira zaintzaileak euren ardura zein den adieraziz.
- Irakaslearen zeregina da ikasleak aktiboki behatzea jolasaldian eta/edo zaintzan dagoenean, bizikidetzak-arazoak hauteman eta prebenitzeko asmoz, eta Bizikasiko talde dinamizatzailearen koordinatzaileari jakinaraztea edozein gertaera.
- Korridoretako ordena eta oro har ikasleek ikasgelatik kanpo duten jokaera zaintzea. Horrek ez du esan nahi gainerakoek lagundu behar ez dutenik.
- Bere txandaren barruan gertatzen den edozein ustekabe berehala konpontzea eta ikasketa-buruari haren berri ematea ahal bezain laster. Besteak beste, beharrezko izapideak egin behar ditu eskolako inork sendagilearen laguntza behar badu.

JUAN OROBIOGOITIA B.H.I.	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
BARNE ARAUTEGIA	AR010101	11/11/02
	Ber. 1	Orr. 11/27

Ordu lektiboetan, bi irakasle egongo dira zaintzan: bat DBHko eraikinean eta bestea Batxilergokoan. Zaintza egin beharrik ezean, toki banatan egongo dira. Eraikin berean bi zaintza suertatuz gero, biak egongo dira eraikin horretan. Bi baino gehiago direnean tutoreak ez diren guraso ordua erabiliko da zaintzak betetzeko. Azkenik, edozein arrazoiengatik behar bezala ezingo balitz zaintza ordu bat bete, DBHak du beti lehentasuna. *Horrek esan nahi du, zaintza egitean, DBHko eraikinean beti zaintzako irakasle bat egon behar dela.* Batxilergoko azken saioan zaintza ziurtatzen bada, zuzendaritzak soilik erabaki dezake talde hori lehenago joateko baimena ematea, zaintza hori betetzeko zailtasunak badaude.

Asteko egun guztietako atsedenaldietan zaintzetarako 5 irakasle izendatuta ditugu:, liburutegian (1), polikiroldegian (1), patioan (2) eta Batxilerrean (1). Jantoki orduan ere, DBHko liburutegian irakasle bat egongo da.

- Patioak zaintzen daudenen zereginak: patioan gaudela, bueltatxo batzuk emango ditugu institutuko esparrutik. DBHko ikasleek eskola esparrutik ezin dute irten baimenik gabe.

Klase batera huts egingo duela aurretik dakien irakasleak, Ikasketaburuari jakinaraziko dio eta lanak prestatuta utziko ditu. Bat-batekoa denean abisua emango du Zuzendaritzan bere ordezkapena antolatua izan dadin.

9. Ordutegia :

- DBHko ikasleak:
 - Iraila eta ekainean: jardunaldi jarraia: 08:10-14:10
 - Gainontzeko hilabeteetan: goizez eta arratsaldez: 08:10-15:40
 - Asteazken eta ostiraletan: 08:10-14:10
- Batxillerreko ikasleak:
 - Jardunaldi jarraia: 08:10-15:05
 - 2. Batxilerra: asteazkenean eta ostiralean: 08.10-14:10
 - 1. Batxilerra: ostiralean: 08:10-14:10
- Irakasleak: Formakuntza: asteazkenetan, finkatzen ditugun egunetan, 15:10etik 17:10ra.

10. Testu liburuak. liburu solidarioak

a) Funtzionamendu arauak

- Liburuak ikastetxekoak dira, beraz ezin dira ez azpimarratu ezta idatzi ezer ere, arkatza erabilita ere ez.
- Apurketa edo hondaketaren bat eginez gero, hasieran jarritako dirua erabiliz egingo da liburuaren ordezkapena, diru gehiago izanez gero, falta dena ordaindu beharko da.

b) Liburuak berriak direnean:

JUAN OROBIOGOITIA B.H.I.	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
BARNE ARAUTEGIA	AR010101	11/11/02
	Ber. 1	Orr. 12/27

- Lehenengo lana liburuak forratu, plastiko gardena erabili eta aeronfix edo halakoak baztertuta utzi.
- Forratu ondoren, ikastetxean banatuko diren pegatinak azaleko beheko eskumako partean ipini eta izen-abizena eta taldea jarri.

c) Liburuak erabilitakoak direnean:

- Liburuaren forroa ondo dagoen begiratu eta behar izanez gero forroa aldatu.
- Lehengo pegatinaren gainean berria ipini eta izen-abizenak eta taldea jarri.

11. Takilak

- Ikasle bakoitzak bere takila izango du. Takila hauek pasiloetan kokatuko dira.
- Ikastetxean matrikulatzen denean 35 euroko diru sarrera egingo du, eta takilaren 2 giltzak jasoko ditu. Hortik aurrera ikaslea arduratuko da bere zaintzaz. Ikasturtero diru kopuru horretatik 3 euro kenduko zaizkio alokairu bezala, eta ikastetxea uzten duenean, geratzen den dirua bueltatuko zaio. Hala ere, kurtso amaieran giltzak bueltatu behar dira takilak aldatzen baitira.
- Giltza bat etxean utziko du gordeta, eta giltzaren bat galtzen bazaio ikastetxean abisatuko du guk kopia egiteko (kode berezia dutelako). Giltzaren kopiaren prezioa deskontatuko zaio.
- Apurketa edo hondaketaren bat eginez gero, hasieran jarritako dirua erabiliz egingo da behar den konponketa.
- Takila barruan dagoen materiala ikaslearen ardura da.
- Geletan ikasleek ezin dute material pertsonalik utzi. Materiala uzten badute, eta desagertzen edo apurtzen bada, ikaslearen erantzukizuna izango da eta ezin izango du desagertutakoaren edo apurtutakoaren inguruko erreklamaziorik egin.

12. Ikastetxe jasangarria

- Ikastetxeak paper birziklatua erosiko du..
- Papera ez erabiltzeko ahaleginak egingo dira eta ahal den guztietan informazioa baliabide informatikoen bidez trukatu da. Salbuespenetan paper birziklatua erabiliko da.
- Gutunazalak eta paperak berrerabiltzen saiatuko gara: azterketak gordetzeko, informazioak artxibatuzeko...
- Geletan bi eratako papera egongo da, birziklatu garbia eta berrerabiltzekoa.
- Zirriborroak, eragiketak... berrerabiltzeko paperean egitea bultzatuko da.
- Gehiago erabili ezin diren paperak, birziklatzeko bilduko dira.
- Papera murrizteko ekintzak bultzatuko dira: baliabide digitalak, fotokopiak alde bietatik atera, notak inikaren bitartez ematea...
- Posta elektronikoz jasotako mezuek ahal den gutxien inprimatuko ditugu, eta beharrezkoa denean fotokopiagailuan inprimatuko dira.
- Informazioak inprimatu aurretik papera ondo aprobetxatzen saiatuko gara.
- Plastikoa sailkatuko ditugu jantokian eta irakasle gelan eta edukiontzira eramango ditugu. Patioan ere banaketa hori egiten saiatuko gara.
- Geletako kutxak zaintzen eta hobeto erabiltzen saiatuko gara.
- Koadernoak ondo aprobetxatuko ditugu.
- Kafea hartzeko bakoitzak bere ontzia erabiliko du, eta plastikozko edalontzia ezinbestekoa denean bakarrik erabiliko dugu.

JUAN OROBIOGOITIA B.H.I.	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
BARNE ARAUTEGIA	AR010101	11/11/02
	Ber. 1	Orr. 13/27

- Ikastetxeko ospakizunetan plastikozkoak ez diren ontziak erabiliko ditugu eta jaki jasangarriak erabiltzen saiatuko gara (bertokoak, sasoikoak, etxeakoak...)
- Gelak hutsik daudenean argiak amatatuta utziko ditugu

13. Azterketak

Azterketa egunak jartzeko orduan, egun berdinetan pilatu ez daitezen, ebaluazio bakoitzeko aurreko hamabostaldian, Calendarren egutegia jarriko da, eta irakasle bakoitzak bere arloko eta gelako azterketak jarriko ditu.

Azterketak, arlo instrumental birenak gehienez jarri ahal izango dira , eta hiru azterketa, guztira egun berean.

Azterketa horiek lehentasuna izango dute egun horretarako deituta egon daitekeen edozein lanuzteren gainera, eta, beraz, greba deialdiarekin bat egitea erabakitzen duenak azterketa hori egiteko eskubidea galduko du, eta, ondorioz, kalifikazio negatiboa izango du.

14. Ikastetxeko zerbitzuak

Jolastorduan, liburutegia eta polikiroldegia zabalik egongo dira irakasle baten ardurapean. Liburutegiko arauak bertan jarrita egongo dira.

15. Eskola-komunitateko kide baten heriotzaren aurrean

Bi egoera aurreikusten dira:

- Bertako kide baten heriotza : ikasleak, irakasleak eta ez-irakasleak (konserjeak, bulego-laguntzaileak, garbitasuneko pertsonala, Sukaldeko pertsonala)
Kasu honetan institutuak oroigarria bat egingo du (Koroa edota lore-sorta) eta erabakitzen den egunkarian eskela bat jarriko du ere.
- Familia-kide baten heriotza: Eskola-komunitateko kide baten familiakoa diren kasuetan Institutuak oroigarria bat egingo dio kideari: Koroa edota lore-sorta.(Ikasleen kasuan: aita-ama edo legezko tutorea hiltzen denean eta bestelako kideen kasuan, seme-alabak, senarra edo emaztea hiltzen direnean.)

Ordainketa IGE eta IKASTETXEAREN ARTEAN egingo da kasu guztietan.

Hiletak:

Kasu guztietan, Hiletara Ikastetxeko zuzendaritza eta IGE-ko ordezkariak joango dira.

16. Ikasleen irudia erabiltzeko baimena

Idatzi bat dago (*irudien gaineko gurasoen baimena- DK010406 dokumentua*) baimen hori gurasoei eskatzeko, non aipatzen den argi eta garbi zertan datzan baimen hori: zein egoeratan erabiliko den ikasle baten irudia, eta zein helbururekin.

17. Beste batzuk

JUAN OROBIOGOITIA B.H.I.	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
BARNE ARAUTEGIA	AR010101	11/11/02
	Ber. 1	Orr. 14/27

- Ikastetxeetako gobernu-organoek, irakasleek eta ikastetxeko gainerako langileek berdinen arteko tratu txarrak prebenitzen eta konpontzen lagunduko dute, ezarritako prozedurei jarraiki eta Zuzendaritzari haren berri emanaz, hark Hezkuntza Administrazioari jakinaraz diezaion.
- Eskola-eremuan ez da inola ere tabakoa, alkohola edo bestelako drogarik edukitzen eta kontsumitzen utziko.

B. IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1. ESKUBIDEAK

1.1. Hezkuntza integrala izateko eskubidea.

1.1.1.- Ikasleek beren nortasuna guztiz garatzeko aukera emango dien hezkuntza integrala jasotzeko eskubidea dute.

1.1.2.- Hezkuntza integral horretan, oinarrizko gaitasunak, zientziaren eta kulturaren arloko edukiak eta lan-ohitura intelektual eta teknikoak hartu ez ezik, garapen harmoniatsua ere bultzatuko da honako hauei dagokienez: afektibotasuna, autonomia pertsonala, autoestimua, besteeikiko eta ingurunearekiko harremanak izateko gaitasuna, eta jarduera profesionaletan, intelektualetan nahiz aisiakoetan jarduteko gaikuntza. Prestakuntza horrek barnean hartzen du ikasleek Euskal Herriko kide gisa beren kultura-nortasuna aurkitzea eta derrigorrezko irakaskuntza amaitu ondoren bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gai izatea.

1.1.3.- Ikastetxeetako hezkuntza eta curriculum proiektuak helburu horretara bideratuko dira, betiere, legeek hezkuntzari esleitzen dizkieten helburuen barnean. Hain zuzen ere, proiektu horietan 3/2005 Legearen —otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoaren— 24.2 artikuluan adierazitako alderdiak bilduko dira, baita 4/2005 legearen —otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoaren— 29. artikuluan adierazitakoak ere. Era berean, programazioek eta irakasleen lan orok kontuan izango dituzte alderdi horiek, eta irakasleen aginpideak bermatuko duen lan-giroan garatu beharko da, eskola-jardueren barnean nahiz eskolatik kanpokoetan eta osagarrietan, eta irakasle guztien laguntzarekin.

1.2. Ikasle adingabeen eskubidea arreta berehala jasotzeko.

1.2.1.- Ikasle adingabeek ikastetxeen nahiz irakasleen arreta berehala jasotzeko eskubidea dute.

1.2.2.- Arreta hori zuzenean eskainiko da eskumen-eremuari hala badagokio. Ez badagokio, aitzitik, erakunde edo zerbitzu eskumendunari kasua helaraziko zaio. Era berean, gurasoei, adingabearen tutoreari edo, beharrezkoa balitz, Fiskaltzari gertakarien berri emango zaie berehala.

1.2.3.- Ikastetxeak eta bertako irakasleak, ikasleei behar duten arreta berehala ematea bazter utzi gabe, behartuta daude tratu txarrak edo haurren babesik gabeko edo arriskuko egoeren berri ematera adingabeen babesari buruzko eskumena duten Herri Administrazioei, edo, beharrezkoa denean, Fiskaltzari edo Agintaritzari Judizialari. Esku-hartzeen kalitatea eta eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoak diren adina datu eta informazioen berri eman beharko dute, eta aipatutako Administrazioei laguntza eman beharko diete egoera horiek saihestu eta konpontzeko.

1.2.4.- Hala ere, beti kontuan izan beharko dira adingabearen lehentasunezko interesak. Era berean, derrigorrezko eskolatze-adineko ikasleren bat eskolatu gabe dagoela edo ikasleren batek absentismo-maila handia duela atzematen bada, Hezkuntza-agintariei eta tokiko erakundeei

JUAN OROBIOGOITIA B.H.I.	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
BARNE ARAUTEGIA	AR010101	11/11/02
	Ber. 1	Orr. 15/27

jakinarazi beharko zaie, eskola-absentismoan inplikaturik dauden Administrazio eta Erakunde guztien arteko lankidetzaren lortzearen. Nolanahi ere, behar den diskrezioz jardungo da, eta ikasle adingabearen bizitza pribatua sartzeko saioak da beharrezkoa ez bada.

1.2.5.- Emakumeen eta haurren aurkako indarkeria-zantzurik atzeman badute, irakasleak behartuta egongo dira zantzu horiek ikastetxeko gobernu-organoei jakinaraztera, Haurrak eta Nerabeak Zaindu eta Babestari buruzko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 25. artikuluan nahiz Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 31. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

1.3. Ikastetxeak babesteko ikasle adingabeek duten eskubidea.

1.3.1.- Ikasle adingabeek ikastetxeak haien ohorea, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea dute.

1.3.2.- Ikastetxeko gobernu-organoei behar diren neurriak hartuko dituzte bereziki ikasleen ohorerako, intimitaterako eta irudi propioarako eskubideei inork eraso edo kalte egin ez diezaien, eta, horretarako, beren Antolakuntza eta Funtzionamendu Araudien barruan edo Barne Erregimenean teknologia berrien erabilera arautzeko eta horiek mugatzeko mekanismoak garatu ahalko dituzte.

1.3.3.- Ikastetxeko gobernu-organoei zainduko dute ikasleen bizitza pribatua, familia, etxean edo postan ikastetxeko inor arrazoirik gabe edo legez kanpo ez dela sartzeko. Familiei, ikasleen bitartez, soilik ikastetxeko bizimoduari, irakaskuntza/ikastetxeko jarduerari eta tutoretza-ekintzari buruzko jakinarazpenak, komunikazioak eta agiriak emango zaizkie, eta horiek guztiak honako hauek emango dituzte: administrazio-organoei, gobernu-organoei edo ikastetxeko koordinazio didaktikoak, beren funtzioen barruan, irakasleek eta gurasoen edo ikasleen legez eraturako elkarten ordezkariak.

1.3.4.- Ikastetxeetako gobernu-organoei, irakasleek nahiz administrazioetako eta zerbitzuetako langileek beren lanbide-jardueraren bidez ikasleei eta haien familiei buruz eskuratzen dituzten datu pribatu guztiak behar den diskrezioz erabiliko dituzte.

1.3.5.- Era berean, ikastetxeetako gobernu-organoei eragotziko dute ikasleei buruzko informazioa hedatzea edo haien irudia edo izena erabiltzea komunikabideetan, ikasleen intimitateari, duintasunari, ohoreari, osperari edo legezko interesei kalterik egin ez diezaieten.

1.4. Errendimendu akademikoaren balioespen objektiboa izateko eskubidea.

1.4.1.- Ikasleek eskubidea dute beren dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez aintzat hartu eta balioets diezaieten.

1.4.2.- Aipatu berri dugunaren berme gisa, beren antolakuntza- eta funtzionamendu-erregelamenduan edota barne-erregimeneko erregelamenduan, ikastetxeak hainbat gauza bermatuko ditu: batetik, irakasle guztiek ebaluatzeko irizpideak, helburuak eta edukiak ezagutzen dituztela; eta, bestetik, ikasturte amaierako nahiz ikasturte bitarteko ebaluazio-saioren ondotik, ikasleei, haien gurasoei edo -adinez txiki direnean- legezko ordezkariari informazioa emango zaie. Era berean, hala eskatuz gero, azken kalifikazioaren gain eragina izango duten lanak, ariketak eta probak zuzendu ondotik ikusteko aukera bermatuko zaie. Horrela, bermatu egingo da aipatu probak berrikusteko eskubidea. Bermatuko da ere azken kalifikazioen kontrako barne-erreklamazio prozedura egotea. Prozedura hori betetzeko da, egoki balitz, dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara jo aurretik.

1.4.3.- Ikastetxeek ikasleak ikasturte osoan ebaluatzeko erabili diren proba, lan eta ariketa guztiak gordetzeko beharrezkoak diren neurriak ezarri beharko dituzte, ez-ohiko azken deialdiko kalifikazioak erreklamatzeko epea amaitu arte. Erreklamazioa egiten bada, aurkeztutako erreklamazioa ebazteko kontuan hartu beharko diren eta erreklamazioa egin duten ikasleei itzuli ez

JUAN OROBIOGOITIA B.H.I.	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
BARNE ARAUTEGIA	AR010101	11/11/02
	Ber. 1	Orr. 16/27

zaizkien zuzendutako ariketa eta lan guztiak nahiz gainerako ikasleenak gorde beharko dira konparaketa-oinarri gisa erabiltzeko, horiei buruzko administrazio-erabaki bat edo ekintza judizial bat egin daitekeen bitartean.

1.5. Eskola- eta lanbide-orientaziorako eskubidea.

1.5.1.- Ikasleek hezkuntza- eta lanbide-orientazioa jasotzeko eskubidea dute. Orientazioa ikasleen trebetasun, gaitasun, nahi eta interesetan oinarrituko da, eta sexuan edo bestelako zirkunstantziaren batean oinarritutakoak baztertu egingo dira.

1.5.2.- Eskubide horrek honako hauek hartzen ditu barnean:

a) Ikasleei, ikastetxean sartzan direnetik, hezkuntza-orientazioko zerbitzuak ematea, aukera egokiak eginez, ikasle bakoitzaren trebetasun, gaitasun, nahi eta interesetarako ikasketa-planik egokiena aukeratzeko, batez ere maila edo ziklo bakoitzaren amaieran.

b) Eskaintzen zaizkien aukerei buruzko aholkuak ematea ikasleei, enpleguaren egoerari eta aurreikuspenei buruzko informazioa kontuan hartuta. Horri dagokionez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikastetxeek harremanak izango dituzte beren inguruneko Erakunde eta enpresa publiko eta pribatuekin.

1.6. Osotasun, nortasun eta duintasun pertsonaleko eskubidea.

1.6.1.- Ikasleek beren osotasun fisikoa eta morala errespetatzea eskubidea dute, baita beren nortasun eta duintasun pertsonala ere, eta ez zaie inoiz tratatu iraingarri edo laidogarria emango. Era berean, zeinahi eraso fisiko edo moralaren aurrean babesa jasotzeko eskubidea dute.

1.6.2.- Jokabideren bat zuzendu behar zaienean, arbitrariotasunik gabeko neurrien bidez zuzenduko zaie, eta Dekretu honetan ezarritako berme formalen arabera betiere. Era berean, ikasleei ezin izango zaie sekula zigor fisiko edo moralik ezarri.

1.6.3.- Ikasleen jarduera akademikoa segurtasun- eta higiene-baldintza egokietan egin beharko da.

1.7. Kontzientzia-askatasunerako eskubidea.

1.7.1.- Ikasleek eskubidea dute beren kontzientzia-askatasuna eta beren erlijio-sinesmenak nahiz sinesmen moral eta ideologikoak errespetatzea.

1.7.2.- Eskubide horren berme gisa, ikasleek, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuari, eta, hala badagokio, ikastetxearen nondik norakoari buruzko informazio nahikoa izan beharko dute matrikulatu aurretik.

1.7.3.- Ikasleek erlijioaren eta moralaren arloan beren sinesmenekin bat datorren irakaskuntza aukeratzeko duten eskubidea bermatuko dute ikastetxeek, baita horrelako irakaskuntzarik ez jasotzekoa ere, eta aukera horrek ez du diskriminaziorik eragingo. Era berean, ikastetxeetan ematen den irakaskuntzak inolako manipulazio ideologikorik ez izatea bermatuko dute ikastetxeek.

1.8. Ikastetxeetan biltzeko eskubidea.

1.8.1.- Ikasleek ikastetxeetan bildu ahal izango dira eskolako nahiz eskolaz kanpoko jarduerak gauzatzeko, baita hezkuntza edo trebakuntza xede duten jarduerak gauzatzeko ere.

1.8.2.- Antolakuntza eta Jarduera Araudiek edo Barne Araudiek biltzeko eskubidea baliatzeko modua, ordua, espazioak eta lekuak arautuko dituzte, baita derrigorrezko aurretiazko baimentzeak edo jakinarazpenak, edo bertaratu daitezkeenak ere. Horretarako kontuan hartuko da irakatsi eta ikasteko jardueren garapen normalean izan dezaketen intzidentzia-maila.

1.8.3.- Ikasleek eskoletara bertaratzeari buruz hartzen dituzten erabaki kolektiboak (GREBA) ez dira jokabide desegokitzat, bizikidetzaren aurkako jokabidetzat edo bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidetzat hartuko eta horiei erantzuteko ez da neurri zuzentzailerik ezarriko. Eskubidea gauzatzeko jarraitu beharreko prozedura ondokoa da:

JUAN OROBIOGOITIA B.H.I.	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
BARNE ARAUTEGIA	AR010101	11/11/02
	Ber. 1	Orr. 17/27

Ikasleen ordezkariak bai euren ekimen propioaz, bai greba egiteko eskubidea daukan ikasleentz %5ak hala eskatuta, edota legalki erabakituta dauden ikasleentz Erakundeak, Federazioak, etabarreko ordezkariak egin dezake ikasgelara ez joateko deialdia.

48 ordu arinago greba deialdiari buruzko informazioa zentrora ekarri behar dute, behar bezala argudiatuta: norik egiten duen deia, deialdiaren data eta ordua, programatutako ekintzak. Denbora ezagatik aurreko epe hori beteazina balitz, garaiz enteratu ez direlako edo, 24 ordu lehenago eginda ere onar daiteke. Inolaz ere epe laburragoan.

Ikastetxeko ikasleentz ordezkariak greba-proposamena bai Zuzendaritzari bai gainerako ikasleei helaraziko diete.

Informazioa zabaltzeko era: ordezkariak informazioa zabaltzeko behar dute geletan eta honekin batera bozketa egin. Bozketa isilpekoa izango da eta proposamena aurrera ateratzeko erabateko gehiengoa (botoen erdiak gehi bat) izan behar da, bestela proposamena bertan behera utziko da. Ez da loturapeko bozketarik. Bozketa ez da loteslea izango.

Erabiliko diren boto-txarteletan, BAI eta EZ aukerak azalduko dira, bakoitza laukitxo batean. Hautesleek aukeretako baten alde egin beharko dute. Hartara, beraiek hautaturiko aukeraren laukitxoan ixa bat egin beharko dute. Bi laukitxoetan marka bana duten boto-txartelak baliogabeak izango dira, baita norberak bete ez duen botoa edo beste modu batera betetako botoa ere. Markadun laukitxorik ez duten botoak eta bestelako daturik ez dutenak boto zurizat hartuko dira.

Bozketaren emaitzak, ordezkariak eta momentu horretan gelan dagoen irakasleak sinatuta, zuzendaritzara eraman behar dira, 24ordu lehenago gutxienez eta salbuespen moduan (ondo justifikatuta badago) 12 ordu lehenago ere onar daiteke.

Honen guztiaren berri, OOGren Batzorde Iraunkorreko ordezkariari eta Guraso Elkartearen presidenteari emango zaio.

Greba baimenak klaseko ordezkariaren ardurapean geratuko dira, tutoreari emango dizkio eta honek zuzendaritzan entregatuko ditu.

Kasu horretan zuzendaritzatik gurasoei ohar bat bidaliko zaie jakinaren gainean egon daitezkeen DBHren kasuan, gurasoek zuzendaritzak bidalitako oharriari erantzun egin behar diote baiezkoa ala ezezkoa esanez aurreko egunean edota egunean bertan. Ez dakarrenak klasea etorri beharko du eta, hala egiten ez badu, bere gain hartzen du erantzukizuna eta egun horretako hutsegitea ipiniko zaio.

Ikasgelara ez joateko deiarekin bat egiten ez duten ikasleek zentroan gelditzeko eskubidea daukate. Irakasleek behar bezala zainduko dituzte.

Irakasleak, ikasleriak eskubide hau gauzatzen duenean, ez daude behartuta eskola programaketari dagokion zatia errepikatzen.

Salbuespena: Grebarekin bat egin ala ez erabakitzerakoan kontuan izango da azterketa dagoen ala ez, edota, aldeztatik aurreikusitako ekintza osagarriaren bat (irteera edota bestelakoak) beti ere, ekintza osagarria atzeratzen bada edota ordainduta badago. Kasu hauetan azterketa edota ekintza osagarriak lehentasuna izango du eta, beraz, grebarekin bat egiteari uko egin beharko dio/diote dagokion taldeak/taldeek.

1.9. Adierazpen-askatasunerako eskubidea ikastetxeetan.

1.9.1.- Ikasleek adierazpen-askatasunerako eskubidea dute, beren iritziak askatasunez, bakarka eta taldean, adierazi ahal izateko.

1.9.2.- Ikastetxeetako Antolakuntza eta Jarduera Araudiek edo Barne Araudiek zehaztutako dute idazki bidez adierazpenerako eskubidea baliatzeko modua eta espazioak.

1.9.3.- Irakasleak artikulu honetan eta aurrekoan adierazitako eskubideak betetzeko eskola-eremutik ateratzekoak badira, gurasoen edo legezko ordezkarien baimen idatzia beharko dute, baldin eta

JUAN OROBIOGOITIA B.H.I.	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
BARNE ARAUTEGIA	AR010101	11/11/02
	Ber. 1	Orr. 18/27

adinez txiki badira. Idazki horretan, ikastetxetik ateratzeko baimena zer ordutan ematea eskatzen den adierazi beharko da, hala badagokio, erantzukizun zibilak zehazteko, eta derrigorrezkoen ondorengo hezkuntzetako ikasleen kasuan izan ezik; azken horien kasuan, gurasoen edo legezko ordezkarien idazki bidezko baimen orokorrarekin nahikoa izango da.

1.10. Ikasleek elkartzeko duten eskubidea.

1.10.1.- Ikasleek elkartzeko eta elkarteak, federazioak nahiz konfederazioak osatzeko eskubidea dute, indarrean dauden legeetan oro har xedatutakoarekin bat.

1.10.2.- Ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudietan edo Barne Araudietan erabakitakoari jarraiki, ikastetxeak lokal egokiak utzi beharko dizkie ikasleei ikasle-elkarteen berezko jardueretarako, betiere azpiegiturak ezarritako mugak kontuan izanik eta jarduera akademikoa eten gabe. Ahal den neurrian, utzitako lokalak premiei egokitzen zaizkiela eta behar bezala erabiltzen direla bermatu beharko du ikastetxeko zuzendaritzak, bai elkarteek modu iraunkorrean erabiltzeko izaten diren lokalen kasuan, baita unean uneko premiaren arabera erabiltzen direnen kasuan ere.

1.11. Parte hartzeko eskubidea.

1.11.1.- Ikasleek ikastetxeko jardueran eta bizimoduan parte hartzeko eskubidea dute, indarrean dauden araei jarraiki.

1.11.2.- Horrez gain, ikasleen partaidetzarako organo espezifikoak eratu beharko dira, ikastetxeak Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo bere Barne Araudian ezartzen duenaren arabera. Gutxienez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik aurrera ikasturte eta talde bakoitzeko ordezkariak egongo dira, baita ordezkari horiek kide izango diren kide anitzeko organo bat ere.

1.11.3.- Erregelamendu horiek hainbat funtzio ezartzen dizkiote ikasleen partaidetzarako organo kide anitzari. Artean, gutxienez, Ordezkaritza Organo Gorenean ikasleen ordezkari izango direnei aholkuak eman eta laguntza eskaintzea. Ordezkariek aipatutako organora eramango dituzte ordezkatzan dituzten maila, berezitasun edo lanbide-familien arazo zehatzak. Ikasle horiek Ordezkaritza Organo Gorenean edo Eskola Kontseiluan proposamen edo eskaera guztiak aurkeztuko edo beroriei helaraziko dizkiete. Horrez gain, ordezkariak enpresetan praktikak egiteko hitzarmenei buruzko informazioa jasoko dute eta praktiken jarraipenean parte hartu. Ordezkariek, halaber, Ordezkaritza Organo Gorenaren nahiz ikasle ordezkariaren arteko informazioaren garraioa izango dira.

4.- Edonola ere, ikasleen ordezkari izango direnak zuzeneko nahiz isilpeko bozketaren bidez hautatuak izan behar dira taldeko edo mailako bakoitzeko ikasleen artean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaz edo horren baliokideaz geroztik.

1.12. Informazioa erabiltzeko eskubidea.

1.12.1.- Ikasleek, adinaren eta heldutasun-baldintzen arabera, beren garapenerako informazio egokia bilatzeko, jasotzeko eta erabiltzeko eskubidea dute.

1.12.2.- Ikastetxeetako gobernu-organoei haien eskubideak betetzeko beharrezkoa den informazio guztia emango diete ikasleei.

1.12.3.- Ikastetxeetako ikasleek eskubidea dute informazioa jasotzeko beren partaidetzarako taldeko organo kideen eta Ordezkaritza Organo Goreneko edo Eskola Kontseiluko ordezkarien eskutik, bai ikastetxeko gaien inguruan, bai, oro har, Hezkuntza Sistemari dagozkion gaien inguruan.

1.12.4.- Ikastetxeko sarreran jarritako kortxoan ikasleei dagozkien informazioak zintzilikatuko dira modu iraunkorrean. Bestalde ikastetxeko web orriak duen ikasleentzako alderdi pribatuan, digitalizatuta heldzen diren informazioak, eta zentruan formatu honetan sortzen dena ere eskegiko dira.

1.13. Aukera-berdintasunerako eskubidea.

JUAN OROBIOGOITIA B.H.I.	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
BARNE ARAUTEGIA	AR010101	11/11/02
	Ber. 1	Orr. 19/27

1.13.1.- Hainbat arlotako gabeziak eta desabantailak (pertsonek, familia-arlokoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak) konpentsatzeko behar dituzten laguntzak jasotzeko eskubidea dute ikasleek, batez ere hezkuntza-premia bereziak badituzte, hain zuzen ere Hezkuntza Sistemari sartzea eta bertan irautea zailtzen dizkieten hezkuntza-premia bereziak badituzte.

1.13.2.- Gure ikastetxeak eskubide hori bermatzeko, ikasleentzako egokituak laguntza ezarriko du, baita integratuz eta hezkuntza-premia berezietan erantzutera bideratutako neurri hezigarriak ere.

1.13.3.- Hezkuntzako premia bereziak dituzten ikasleek beren beharren arabera jasoko dute, ikastetxearen berezko baliabideekin eta Hezkuntza Administrazioak ikastetxearen esku jarri dituen baliabideekin.

1.13.4.- Ikastetxeek beste zerbitzu publikoekin eta udaletako, lurraldeetako nahiz Autonomia Erkidegoko beste zerbitzuekin harremanak izango dituzte arlo soziokulturalen eta arlo ekonomikoan bereziki behar diren ikasleentzako erantzuteko.

1.14. Gizarte-babeserako eskubidea.

1.14.1.- Ikasleek hezkuntza-arloan gizarte-babesa jasotzeko eskubidea dute, familia-ezbeharren edo istripuen kasuan.

1.14.2.- Osasunaren eta Gizarte Segurantzaren arloan indarrean dagoen legeriaren arabera dituzten eskubideak alde batera utzi gabe, gure ikastetxeak beharrezkoak diren baldintza akademiko eta ekonomikoak ezarriko ditu familia-ezbeharra, istripua edo gaixotasun luzea izan duten ikasleek beren ikasketek eutsi eta ikasketak amaitzeko edo geroko ikasketek hartzeko aukera izan dezaten.

1.14.3.- Kasu horietan, derrigorrezko mailatan diharduten ikasleek beren eskola-errendimendua ziurtatzeko behar den laguntza jasotzeko eskubidea dute. Laguntza hori ikastetxearen bidez, Oinarrizko Urrutiko Hezkuntzako Ikastetxeen bidez, edo Lurralde Ikastetxeen esku dauden Ospitaleko, Etxez Etxeko eta Terapeutikako Hezkuntza-arloko Arretarako baliabideen bidez.

1.14.4.- Ikastetxeak babes-neurriak hartu beharko ditu berdin arteko tratatu txarren kasuetan eta bereziki eskola-jazarpenen eta emakumeen aurkako eraso kasuetan. Beharrezkotzat jotzen badu, jazarleak ikastetxez aldatzea berehala proposatu dezake edo, jazarpenaren biktimek nahiago badute eta hala eskatzen badute, biktimek lekuz alda ditzakete. Nolanahi ere, behar duten laguntza psikologikoa jasotzeko eskubidea izango dute jazarpenaren biktimek.

1.15. Ikastetxeen ikasleentzako eskubideak errespetatzen direla bermatzea.

1.15.1.- Ikasle guztiek jakin beharko dituzte euren eta gainerako kideen indarreko ordenamendu juridikoan aitortzen zaizkien eskubideak. Era berean, eskubide horiek errespetatzen eta baliatzen ikasi beharko dute, betiere duten adinak horretarako aukera ematen badie.

1.15.2.- Beren eskumenen eremuaren barruan, ikastetxeko Gobernu Organoek, baita irakasleek ere, aurreko artikuluetan adierazitako eskubide guztiak eta Legeek nahiz Nazioarteko Itunek ikasleei aintzat hartzen dizkieten eskubide guztiak baliatzeko aukera bermatuko dute. Ikasle adingabeei dagokienez, berezi babesteko dira Adingabearen Babes Juridikoaren urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak nahiz Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak aintzat hartzen dituztenak, eta, oinarrizko printzipio gisa, haurren eta nerabeen interes gorenari emango zaio lehentasuna aldi bereko beste edozein interes legitimoren aurrean.

1.15.3.- Era berean, ikastetxeko Gobernu Organoek eta irakasleek eskubide horiek legeek ezarritako mugen barnean baliatuko direla zainduko dute, eta ikasleentzako arteko harremanetan ezin eratako diskriminazio-egoerarik gerta ez dadin arduratuko dira, hain zuzen ere, honako hauek arrazotzat hartuta diskriminaziorik gerta ez dadin: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia edota beste edozein zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.

JUAN OROBIOGOITIA B.H.I.	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
BARNE ARAUTEGIA	AR010101	11/11/02
	Ber. 1	Orr. 20/27

2. IKASLEEN BETEBEHARRAK

2.1. Ikasteko betebeharra.

2.1.1.- Ikaslearen betebeharra da bere gaitasun guztiak al bait gehien garatzeko ikastea eta ahalegina egitea. Hain zuzen ere, duintasunez bizitzeko, elkarrekin bizitzeko eta etorkizunean laneratzeko behar diren gaitasunak lortzearen, behar adinako lana egingo du eta behar duen interesa jarriko du; era berean, lan intelektualerako giro egokia sortzen eta giro horri eusten lagundu behar du, eta bere portaerarekin ez du eragozpenik sortuko gelan.

2.1.2.- Ikasleak behartuta daude azterketak eta ariketak egiten dituztenean zintzo jokatzera, eta, beraz, beren ahalegina eta irakasleak maila bakoitzean baimendutako liburuak nahiz materialak besterik ez dituzte baliatuko.

2.2. Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko betebeharra.

Ikasle guztiak hartu behar dute parte prestakuntza-jardueretan, interesez jardunez, agintzen dizkieten lan pertsonalak eginez eta antolatzen diren lan-taldeetan lagunduz.

2.3. Bertaratzeko betebeharra.

2.3.1.- Ikasleek egunero joan behar dute eskolara, puntualtasunez eta justifikatu gabeko absentziarik izan gabe, eta sartzeko nahiz irteteko ordutegiak errespetatu behar dituzte.

2.3.2.- Honako hauek hartuko dira justifikatu gabeko bertaratze- eta puntualtasun-hutsegitez: ikasleak edo, ikaslea adingabea bada, haren gurasoek edo legezko ordezkariak idazki bidez arrazoitzen ez dituztenak.

2.3.3.- Adin txikiko ikasleek ez etortzeak justifikatu egin beharko dituzte amak, aitak edo tutoreak sinatutako agendako idatzi baten bidez edo einikaren bidez. Adin nagusiko ikasleek ere, ez etortzeak justifikatu beharko dituzte. Ez etortzearen justifikazio agiria ikasleak, itzultzen denean, dagokion irakasleari eta, ostean, tutoreari emango dio. Gaixorik egon bada medikuaren agiria ekartzea komenigarria izango da. Hainbatetan errepikatzen bada gaixotze hori, medikuaren agiria behar beharrezkoa izango da, horrela azterketa izan badu egun horretan galdu duen azterketa egin ahal izango du.

2.3.4.- Irakasle bakoitzak ikasleen bertaratze kontrola eramango du egunero gai honetarako zentruak duen aplikazio informatikoaren bitartez.

2.3.5.- Tutoreak bere gelako ikasleen hutsegitean jarraipena egingo du.

2.4. Bizikidetzaren errazteko betebeharra.

2.4.1.- Ikasleek parte hartu eta laguntza eman behar dute ikastetxean eskola-bizikidetzaren hobetzeko eta ikasteko giro egokia lortzeko, betiere ikaskideen hezkuntzarako eskubidea eta irakasleen agintaritzaren eta orientazioaren errespetatuz.

2.4.2.- Horretarako, ikasleek ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo Barne Araudian bildutako Bizikidetzaren Arauak jakin behar dituzte; irakasle eta hezkuntza-komunitateko kide guztien eskubideak errespetatu behar dituzte, eta portaera egokia izan behar dute haiekin guztiekin, besteek beren eskubideak baliatzeko dituzten eskubideak urratu gabe, sortzen diren gatazkak konpontzeko metodo baketsuak soilik erabiliz, eta betiere ikaskideekiko tolerantziaz eta elkartzasunez jokatzeko eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak baliatzea erraztuz.

2.4.3.- Ikasleek bizikidetzarentzat aurkakoak eta larriki kaltegarriak diren jokabideen neurri zuzentzaileak aplikatzeko lagundu behar dute, zuzendariak edo, hala badagokio, instrukzioaz arduratzen den edozein irakasle eskatzen dienean lekuko gisa deklaratu.

JUAN OROBIOGOITIA B.H.I.	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
BARNE ARAUTEGIA	AR010101	11/11/02
	Ber. 1	Orr. 21/27

2.5.Norberaren kontzientzia-askatasuna errespetatzeko betebeharra.

2.5.1.- Ikasleek hezkuntza-komunitateko kide guztien kontzientzia-askatasuna, erlijioaren eta moralaren arloko sinesmenak, eta duintasuna, osotasuna eta intimitatea errespetatu behar dituzte, honako hauek arrazoitzat hartuta inolako diskriminaziorik egin gabe: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.

2.5.2.- Ikasleek beren ikaskideen erabakiak errespetatu beharko dituzte, ikaskideek adierazteko, biltzeko edo elkartzeko eskubide indibidualak modu kolektiboan baliatzeko ekintzetan parte hartu nahi ez dutenean.

2.5.3.- Ikasleek ez dute hezkuntza-komunitateko kide bakar bat ere iraindu, mehatxatu edo difamatzeko ezein adierazpenik egingo.

2.5.4.- Ikasleek, eskola-eremuan, ezin izango dute grabazio-baliabiderik erabili, ezta ikasgela barruan sakeleko telefonorik erabili, salbu eta ikastetxeak programatutako jardueretan horrelako baliabideak erabili behar badira. Kasu horietan ere ezin izango dute hezkuntza-komunitateko inor grabatu hark nahi ez badu eta hartarako baimena esanbidez ematen ez badu.

2.6.Eskolako arauak errespetatzeko betebeharra.

2.6.1.- Ikasleek, ordenamendu juridikoak hezkuntza-komunitateko gainerako kideei aitortzen dizkien eskubideez gain, ikastetxeko antolamenduko, bizikidetzako eta diziplinako arauak ezagutu eta errespetatu behar dituzte, ikastetxearen Antolakuntza eta Jarduera Araudiko edo Barne Araudiko xedapenak osorik betez, ikastetxeko Hezkuntza Proiektua errespetatuz, eta, hala badagokio, ikastetxearen ideiak eta izaera errespetatuz, baita horrekin ados ez daudenean ere.

2.6.2.- Ikasleek beren eskumenen arloan ikastetxeko gobernu-organoen erabakiak bete beharko dituzte, norberaren garbiketari eta norberaren gauzak, jantziak, tresnak edo aparatu elektronikoak erabili eta erakusteari buruzkoak barnean hartuta, eta, era berean, atsedendietan eskola-eremutik kanpo egin daitezkeen irteerei buruzko eta irteeretan erakusten duten portaerari buruzko erabakiak ere bete beharko dituzte. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren ikasturtetik aurrera ikasle adingabeei irteera horiek baimentzeko, gurasoen edo legezko ordezkarien idazki bidezko eskabidea beharko da. Dekretu honetako 14.3 artikuluan ezarritakoaren aurka joan gabe.

2.6.3.- Era berean, ikasleek irakasleen, hezkuntzako laguntzaileen nahiz legezko araudiak esleitu dizkien funtzioak gauzatzen ari diren ikastetxeko irakasle ez diren jarraibideak bete beharko dituzte.

2.6.4.- Ikastetxeak ezartzen dizkien hezkuntza-neurri zuzentzaileen barnean hartutako ekintzak betetzeko betebeharra dute ikasleek.

2.7.Instalazioak errespetatzeko betebeharra.

2.7.1.- Ikasleek ikastetxeko ekipamenduak eta material didaktikoak zaintzeko eta egoki erabiltzeko betebeharra dute, ikastetxeko, instalazioak, altzariak eta ekipamendu orokorra beren nolakotasunaren arabera eta beren helburuetarako erabiliz, eta, hala badagokio, irakaslearen edo irakasleak ez diren langileen jarraibideen arabera. Ez dute inola ere ikastetxeko ekipamendua baimenik gabe erabiliko ezarritakoak ez diren helburuetarako, ezta dagokion ordutegitik kanpo.

2.7.2.- Ikasleek, baimenik gabe, ez diote kanpoko inori ikastetxean sartzeko aukera erraztuko, eta ez dira bidegabe sartu den inorekin ibiliko bertan. Ildo horretatik, legez eratu diren eta ikastetxean ezarri diren ikasle-elkarteak ordezkatzeko dituzten pertsonak ez dira ikastetxetik kanpoko pertsonatzat hartuko, betiere ordezkari gisa identifikatzen dien dokumentazioa baldin badute eta elkarteko zuzendaritzari beren bisitaren berri eman badiote.

JUAN OROBIOGOITIA B.H.I.	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
BARNE ARAUTEGIA	AR010101	11/11/02
	Ber. 1	Orr. 22/27

2.7.3.- Ikasleek hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzak errespetatu behar dituzte eta ikastetxearen testuliburuak nahiz gainerako material didaktikoak erabiltzeko baldintza egokietan mantendu behar dituzte.

2.7.4.- Ikastetxearen mantenimendua :

- Ikastetxeko apurketak (komunak, kristalak...) apropos egindakoak direnean, erruduna ez bada azaltzen, inplikaturako ikasle guztien artean ordainduko dira.
- Kanpoko instalazioen apurketei buruz, ikastorduetatik kanpo denean, herriko jendeak ere erabiltzen dituzenez, laguntza eskatuko zaio Udalari.
- Departamentu bakoitzak esleituta dituen gelen ardura izango du: materialaz hornitzea, apainketaz, eta zainketa edo apurketaren bat egonez gero zuzendaritzara abisua emango du.
- Geletatik irtetzeko orduetan, irakasleak, gelako argiak itzali eta atea itxi egingo ditu.

3. ZUZENDU BEHARREKO JOKABIDEAK: DESEGOKIAK, BIZIKIDETZAREN AURKAKOAK ETA BIZIKIDETZAN KALTE LARRIAK ERAGITEN DITUZTENAK

3.1. Jokabide desegokiak

JOKABIDE DESEGOKIAK (30. artikulua)

- Justifikatu gabeko puntualtasun-hutsegiteak.
- Justifikatu gabeko hutsegiteak.
- Ikastetxeko instalazioei, ikastetxeko materialari edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei narriadurak eragitea, zabarkeriagatik gertatzen denean.
- Irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa ez betetzea, betiere ikasleak haiek mespretxatzen eta iraintzen ez baditu edo diziplina nahita hausten ez badu; baita ikastetxeko gainerako langileek beren jardunean emandako aginduei jaramonik ez egitea ere.
- Hezkuntza Komunitateko kideen aurkako adeitasunik ezako jarrera, keinu edo hitzak.
- Ikastetxeko Gobernu Organoak bere eskumenen eremuan debekatutako ekipoa, materialak, jantziak edo aparatuak ikastetxera eramatea.
- Ikastetxeko ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo edozein motatakoa) baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.
- Ikastetxeko langileei gezurra esatea edo informazio faltsua ematea, betiere horrek hezkuntza-komunitateko inori kalterik eragiten ez badio.
- Kalifikaziorako baliatuko diren azterketa, proba edo ariketetan kopiatzea edo beste inongo norberarengana kopiatzen erraztea, edo azterketa, proba edo ariketa horietan baimenduta ez dauden material edo aparatuak erabiltzea.
- Hartarako baimenik ez dutenei ikastetxean sartzeko aukera erraztea edo haiekin sartzea, ikastetxeko Bizikidetzaren arauen edo Gobernu Organoen jarraibideen aurka.
- Ikastetxeko instalazioetan (ikasgeletan) sakeleko telefonoa, musika erreproduktorea edota irudiak hartzeko edozein mekanismo erabiltzea. eta jokabide hori ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo bizikidetzaren aurka kalte larria eragiten dion jokabide gisa sailkatuta ez badago.

JOKABIDE DESEGOKIEN ZUZENKETA (34. artikulua)

- Izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa.
- Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea.
- Jokabide-eredu egokiak ikasteko eta barneratzeko jarduerak egitea.
- Jokabide desegokiaren nolakotasunarekin zerikusia duen zereginen bat egitea.
- Jokaera kaxkarra dela medio gertatzen diren apurketak dagozkion ikasleari kobratuko zaizkio. Egin duena azaltzen ez bada, taldea jabetuko da kostuaren ordainketaz.
- Momentu desegokian erabilitako aparailua tramankulua kendu egingo zaio, eta gurasoei jakinaraziko zaie, euren etorri beharko direla aparatu horren bila.

JUAN OROBIOGOITIA B.H.I.	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
BARNE ARAUTEGIA	AR010101	11/11/02
	Ber. 1	Orr. 23/27

l) Ikaskideen gauzak nahita erabiltzea, haien borondatearen aurka.

m) Norberaren betebeharren beste edozein ez-betetze, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea galarazten, oztopatzen edo eragozten ez badie, eta jokabide hori ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo bizikidetzara horri kalte larria eragiten dion jokabide gisa sailkatuta ez badago.

n)klaseetarako behar den materiala ez ekartzea

ñ) Jantokira sartu baino lehen edota jantokitik irten ondoren ikastetxeko eremutik kanpo egotea.

Jokabide desegoki guztiak suertatzen diren momentuan gurasoei komunikatuko zaie GERTAKIZUN AKTA baten bidez, eta beherago jarraitzen den prozedura jarraituko da.

Gertakizun akta betetzen dugunean jarraitu beharreko bidea hauxe izango litzateke:

1. Ikaslea/k, kanporatua bada, irakasleen gelara bidalia izango da lan jakin batekin, inolaz ere ezin da pasiloan gelditu edota patiora bidali. Zaintzan dagoenak zaintza gelara eramango du lan hori egin dezan.
2. Gertakizun akta einikaren bidez beteko da. Irakasleak kopia aterako du eta ikasleari emango zaio gurasoek edo tutoreek sinatzeko. Baina gertakizun akta horren jarraipena ezarri duen irakaslearen arduran geratuko da.
3. Hurrengo egunetarako etxetik sinatuta ekarri behar du derrigorrez. Ikasleak ez badu gertakizun akta sinatuta ekartzen, irakasleak kontaktuan jarriko da guraso edo tutoreekin horren berri emateko.
4. Sinatuta dakarrela, ikasleak entregatu behar dio irakasleari. Irakasleak gertakizun akta ikasketaburuari emango dio.

3.2.- Bizikidetzaren aurkako jokabideak

BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK (31. artikulua)

a) Ikastetxeetako kide bakarreko aginte-organoen edo irakasleen aginduak eta ikastetxeko gainerako langileek beren eginkizunen jardunean emandako aginduak ez betetzea, betiere horrekin batera diziplinarik eza agertzen bada edo irainak, mespretxuak, desfioak edo mehatxuak egiten badira.

b) Ikaskideen edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako mehatxuak edo irainak; betiere jokabide horiek ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa sailkatuta ez badaude, baita honako hauek ere: hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako keinuak edo jarrerak, ezbairik gabe erasotzeko saiakeratzat edo mehatxutzat har daitezkeenak.

c) Azterketa-ereduak lapurtzea edo erantzunak kopiatzea, eta

BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEEN ZUZENKETA (35. artikulua)

a) Bizikidetzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak.

b) Kargu-hartze idatzia.

c) Kargu-hartzea, ikasleen gurasoak edo lege-ordezkariek

JUAN OROBIOGOITIA B.H.I.	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
BARNE ARAUTEGIA	AR010101	11/11/02
	Ber. 1	Orr. 24/27

horiek guztiak hedatzea, saltzea edo erostea.

d) Noten buletineta edo gurasoentzako edo legezko ordezkarietzako beste edozein dokumentutan edo jakinarazpenetan aldaketak egitea, eta, ikasle adingabeei dagokienez, dagokien hartzaileei ez ematea edo erantzunak aldatzea.

e) Kalteak eragitea bidegabeko erabileragatik ikastetxeko lokalei, altzariei, materialari edo dokumentuei, edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei, jokabide hori ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ez bada.

f) Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak hartutako baliozko erabakiak nahita ez betetzea.

g) Pertsonak ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, baimena eman gabe grabazio-baliabideak erabiliz.

h) Beste edonori bere eskubidea baliatzeko aukera galaraztea, indarkeria erabili gabe, eta beste edonor bere borondatearen aurka zerbait egitera behartzea; betiere, indarkeriarik erabili gabe.

bertan direla.

d) Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edo behin betiko.

e) Lan hezigarriak edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea, edo hala badagokio, ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak; betiere, hiru hilabetez gehienez ere. Lan edo zeregin horiek lotura izan behar dute ikasleak bizikidetzaren aurka izandako jokabidearekin.

f) Gai bateko edo batzuetako eskoletara joateko eskubidea eta jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko nahiz zerbitzuak jasotzeko eskubidea etetea, harik eta ikaslearen gurasoekin edo lege-ordezkariekin elkarrizketa bat egiten den arte. Eskubide-etendura horrek ezingo du hiru egun baino gehiago iraun.

g) Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte.

h) Eskolaz kanpo egin behar diren jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte. Nolanahi ere, eskola-orduetan, ikasleari arreta eman beharko zaio ikastetxean.

JUAN OROBIOGOITIA B.H.I.	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
BARNE ARAUTEGIA	AR010101	11/11/02
	Ber. 1	Orr. 25/27

BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK (31. artikulua)

i) Ordena nahasten duten portaerak autobusean edo eskolako jangelan, bai bakarka bai taldean, eta, betiere, bizikidetzan kalte larria eragiten ez badute.

j) Hezkuntza-komunitateko edozein kiderengan lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak zuhurtziarik gabe erabiltzea.

k) Ikastetxeko langileei gezurra esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren nortasuna ezkatutzea, horren ondorioz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuei kalte egiten bazaie.

l) Diskriminazioa dakarren edozein egintza edo jokabide, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial. Betiere bizikidetzan kalte larria eragiten duen jokabidetzat hartzen ez bada.

m) Aurreko artikuluan adierazitako jokabide desegokiren bat gehienez ere hiru aldiz egitea hiruhileko akademiko berean; betiere, aurreko biak zuzendu badira, eta, ikasle adingabeei dagokienez, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.

n) Ikasleen betebeharrak ez betetzea dakarren beste edozein jokabide, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzeko edo beren betebeharrak betetzeko eragozpenik sortzen ez badie eta jokabide hori hurrengo artikuluan jasota ez badago, ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen artean, hain zuzen ere.

BIZIKIDETZAREN AURKAKO NEURRIEN ZUZENKETA (35. artikulua)

i) Jangela-zerbitzua edo garraio-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendu beharreko jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte, edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte; betiere, bizikidetzaren aurkako jokabidea zerbitzu horiek erabiltzen ari zenean egin badu ikasleak.

2. 1.g), 1.h) eta 1.i) idatz-zatietan adierazitako neurriak erabili ahal izan dira, soilik 1.a) eta 1.f) idatz-zatietan adierazitako neurrietatik bi gutxienez aplikatu ondoren bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzea lortu ez bada.

Dekretuko 31. atalean adierazitakoaren arabera interpretatuko da idatz-zati hau.

3.3. Bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkieten jokabideak

BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEAK (32. artikulua)

a) Ikastetxetako gobernu-organoekiko edo beren eskumenak betetzen diharduten irakasleekiko diziplinarik ezako egintza edo obediencia-ukatze esplizitu guztiak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne, baita hezkuntza-komunitateko kideen aurkako adierazpen oso laidogarri edo iraingarriak ere, laido edo irain horiek edozein modutan adierazita ere: ahoz, idazki bidez, edo baliabide informatikoak edo ikus-entzunezkoak erabiliz.

b) Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.

c) Jazarpen sexista, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerakok, ezarritako definizioa aintzat hartuta: nahi ez duen pertsona batekin eta

BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEEN ZUZENKETA (36. artikulua)

1. Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko, aurreko artikuluan bildutako neurri bat edo gehiago aplikatuko ditu zuzendariak, eta, horiez gain, honako hautetako edozein:

a) Lan hezigarriak eskola-ordutegitik kanpo egitea, edo ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, edo, hala badagokio, eragindako kalte materialak konpontzeko lanak, betiere sei hilabetez gehienez ere.

b) Arlo edo irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko

JUAN OROBIOGOITIA B.H.I.	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
BARNE ARAUTEGIA	AR010101	11/11/02
	Ber. 1	Orr. 26/27

pertsona horren sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsai, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea bada.

d) Hezkuntza-komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisiko edo psikologikoa.

e) Ikastetxeko hezkuntza-komunitateko kideak beren osasunerako eta osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jokia erak egitera bultzatzea, hala nola tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzera bultzatzea.

f) Bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak, taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean, ahoz, idazki bidez, ikus-entzunezko baliabideen edo baliabide informatikoen bidez; baita berdinaren arteko tratu txarreko egoeretan parte hartzen dutenean ere.

ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.

c) Ikastetxera joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko; betiere, lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.

d) Eskolaz kanpoko jardueretan edo ikastetxetik kanpoko jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea edo eskola-garraioko zerbitzua edo jangela-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea. Neurri hori ikasturtea amaitu arte aplikatu ahal izango da.

2. Artikulu honetako 1.b), 1.c) eta 1.d) idatz-zatietan bildutako neurriak erabili ahal izango dira, baldin eta 1.a) idatz-zatian adierazitako neurrietako baten bat aplikatuta bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzerik lortu ez bada.

Dekretu honetako 3.1. atalean araututakoaren arabera interpretatuko da idatz-zati hau

JUAN OROBIOGOITIA B.H.I.	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
BARNE ARAUTEGIA	AR010101	11/11/02
	Ber. 1	Orr. 27/27

BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEAK (32. artikulua)

g) Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea, betiere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.

h) Nahita kalteak eragitea ikastetxearen instalazioetan edo ondasunetan, ikastetxeko langileei, beste ikasle batzuei edo beste pertsona batzuei, bai bakarka. bai taldean.

i) Ordena nahasten duten jokabideak autobusean edo eskolako jangelan; betiere, hezkuntza-komunitateko edozein kiderentzako egoera arriskutsuak sortzen badituzte.

j) Grabazio-baliabideak erabiliz, besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, aldez aurretik haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, horrelakorik nahi ez dutela esanbidez adierazi badute.

k) Ikastetxeko jarduneko egintzetan, beste edonoren izena erabilia aritzea.

l) Euskarri idatzian edo informatikoan dagoen eskolako dokumenturen bat edo erregistroren bat kaltetzea, truketzea edo aldatzea, baita dokumentu akademikoak ezkutetzea edo baimenik gabe ateratzea ere.

m) Delitua edo zigor-arloko hutsegitea den edozein egintza, nahita egin bada.

n) Ikasturte berean gehienez ere hiru aldiz egitea aurreko artikuluan adierazitako bizikidetzaren aurkako edozein jokabide, artikuluko horren 1.m) idatz-zatian bildutakoa izan ezik, betiere aurreko biak zuzendu badira eta, hala badagokio, gurasoei edo legezko ordezkariak jakinarazi bazaizkie.

ñ) Norberaren betebeharrak ez betetzea dakarren edozein jokabide, betiere jokabide hori hezkuntza-komunitateko gainerako kideen edo beste edonoren eskubideen aurkakoa bada zuzenean; hain zuzen ere, honako eskubide hauen aurkakoa bada: osasunerako, osotasun fisikorako, adierazpen-askatasunerako, parte hartzeko, biltzeko, diskriminaziorik ez jasateko, ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideena.

BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEEN ZUZENKETA (36. artikulua)

3. Ikasleren bat, aurretiaz, zuzendua izan bada ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak izateagatik, ikastetxeko zuzendariak aukera izango du, 28. artikuluko 1.n) idatz-zatian adierazitako kasuan izan ezik, hezkuntzako lurralde-ordezkaritari eskatzeko ikasle horren matrikula beste ikastetxe batera aldatua izan dadin. Ikaslea adin nagusikoa balitz edo derrigorrezkoak ez diren ikasketak ikasiko balitu, urruneko hezkuntzako zentroetarako edo gaueko ikasketetako zentroetara lekualda daiteke haren espedientearekin. Adinez nagusiko ikasleak edo derrigorrezko hezkuntzaren ondoko ikasketak egiten dituen ikasleak ez balu onartuko espedientearen lekualdaketa hori, baliogabetu egingo da ikasle horrek ikastetxean duen matrikula, eta baja emango zaio ikastetxe horretan.

4. Ikastetxeko bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkion jokabidearen ondorioz berdinaren arteko tratu txarrak edo jazarpen sexistak eragin edo iraunaraziko balitu, edota, jokabide horiek ikastetxeko irakasleren bati egindako erasoak badira, zuzenean proposa daiteke espedientearen lekualdaketa, aintzat hartu gabe ikasle hori aurretik zuzendua izan den ala ez. Jardunbide bera baliatzeko aukera izango da, baldin eta eraso fisiko bereziki larriak egin bazaizkie hezkuntza-komunitateko beste kideren bati.

Dekretu honetako 75. artikuluan adierazitakoaren arabera interpretatuko da idatz-zati hau.

Dekretu honetako 3.1. atalean adierazitakoaren arabera interpretatuko da idatz-zati hau.

3.4. Ikastetxetik kanpo egindako jokabide edo egintzengatiko erantzukizuna.

Aurreko artikuluetan bildutako jokabideak eskolako eremutik edo ordutegitik kanpo egiten direnean ere zuzenduko dira, betiere ikastetxeak programatutako jarduera osagarrien edo eskolaz kanpokoen jardunean egiten badira, jangela- edo garraio-zerbitzuak erabiltzen diren bitartean, edo eskolako jarduerarekin kausa-ondorio harremana dagoela egiaztatzen denean.